

BALIO PROPOSAMENA

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Eremu naturalik ez duten haur eskolei eremu natural bat sortzeko aukera ematea. Garrantzitsua iruditzen zaigulako haurra ingurunearekin elkarreragitea.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Eskola haurrari laguntzeko eremua izan behar da, eta haurra hezitzen den eremua egonkorra izateaz gain denetarikoa baliabideak eskaini behar dizkio.

Gure empresari dagokionez, eskaintzen dugun zerbitzua **personalizatua** da.

Balio kualitatiboari dagokionez, hau da, **diseinoa**, haur eskola bakoitza erabaki dezake zer baliabide eta material erabili nahi duten. Horrez gain, gure proiektua hezkuntza profesionalak eta lorezaintzako profesionalak osatzen dute. Beraz, hezkuntzako profesionalekin lan egiteagatik, inguruneke eremuan sor daitezken **arriskuak murrizteko** gaitasuna eskaintzen dugu.

Balio kuantitatiboari dagokionez, gure proiektuaren kostua **eskuragarriagoa** izango da gu lorategi enpresa batekin aliantza dugunez baliabide materialen prezioa merkeago lor dezakegulako.

Gure proiektua **berritzailea** da natura eremurik ez dagoen haur eskoletara basoa eramaten dugulako. Gaur egun modan dauden teoria pedagogikoak kontuan hartuta erabat naturalak izango dira, adibidez; egurra, soka, area, ura...